



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Departamento de Educación, Universidades e
Investigación
EE.OO.II. de la C.A.P.V.



**EUSKARAKO MAILA PROBA
TARTEKO MAILA (B1)**

**PRUEBA DE NIVEL DE EUSKERA
NIVEL INTERMEDIO (B1)**

Atalak / Secciones	Puntuazioa Puntuación	Ehunekoa eta Maila Porcentaje y Nivel	Iraupen gomendatua Duración recomendada
A) Irakurriaren ulermena Comprensión lectora	25	<%35 (15 edo gutxiago): B1.1 %35-70 (16-31 punturekin): B1.2 %70 > (32 edo gehiago): B2.1	50'
B) Entzunaren ulermena Comprensión auditiva	20		20'

Tarteko Mailetarako Sarrera Proba:

Prueba de Acceso para Niveles Intermedios

Oharrak:

- Sarrera edo Maila Probaren atal honek, norberak zuzendu ondoren, EAEko HEOetako Tarteko Mailetan (B1.1,B1.2) edo Goi Mailako lehen urtean (B2.1) matrikulatzeko aukera emango dio ikasle-gaiari. Autozuzenketa egiteko, erabili probaren bukaeran datorren erantzun-orria.
- Proba honetan bi atal edo zati dituzu: Irakurriaren Ulermena eta Entzunaren Ulermena.
- Sarrera probaren atal hau gutxi gorabehera eskolako *Tarteko Mailako (B1)* azterketarekin bat dator.
- Eta ikasle-gaiak emaitzen arabera hiru multzotan sailkatuko lirateke:
 1. Probaren %35 baino gutxiago lortuko lukeena *Tarteko Maila 1eko* taldeetara lihoake (B1.1).
 2. Probaren %35-%70 bitartean lortuko lukeena *Tarteko Maila 2ko* taldeetara joango litzateke (B1.2).
 3. Probaren %70 baino gehiago lortuko lukeenak *Goi Maila 1eko* taldeetan matrikulatu beharko luke (B2.1).
- Idatzizko eta Ahozko Adierazpenen probei dagokienez, Eskola bakoitzak erabakiko du noiz eta nola egin.

Notas:

- Esta parte de la prueba de autoevaluación, tras la autocorrección, posibilita al alumnado nuevo el acceso a los Niveles Intermedios (B1.1,B1.2) o al primer curso del Nivel Superior (B2.1) de las EOI de la CAV. Para la autocorrección, utilícese la hoja de respuestas que aparece al final de la prueba.
- La prueba consta de dos partes: Comprensión Lectora y Comprensión Auditiva.
- Esta parte de la prueba equivale poco más o menos al examen final del Nivel Intermedio (B1).
- Y los nuevos alumnos, según el resultado obtenido, se clasificarían así:
 1. El que obtuviera una puntuación inferior al 35% de la prueba, debería matricularse en el primer curso del Nivel Intermedio (B1.1).
 2. Aquel que obtuviera una puntuación entre el 35% y el 70% del total de la prueba, debería cursar el segundo curso del Nivel Intermedio (B1.2)
 3. El alumno que superara el 70% se matricularía en el primer curso del Nivel Superior (B2.1).
- Cada Escuela decidirá cómo y cuándo realizar las pruebas de Expresión Escrita y Oral



A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA.

1. **testua:** Testua arretaz irakurri eta gero, aukera itzazu hutsuneak betetzeko hitz egokiak.
0. adibidea da: a) beraiek (10 puntu)

Galdutako gauzen bulegoa

Hiru iturritatik heltzen dira gauzak Bilboko Udaltzaingoak Garellanon duen biltegira. Alde batetik, udaltzainek 0 eguneroko lanean aurkitutakoak edo komisarietan jasotakoak; bestetik, erakundeek edota hiritarrek aurkitu eta 1 bulegora eramandakoak; eta, azkenik, beste udalerrri batzuetatik bidalitakoak, gehienetan galdutako edo lapurtutako agiri pertsonalak.

Azken horiek dira, zalantzarik gabe, mugimendu gehien eragiten dutenak. Poltsa, jaka edo dena delakotik kartera lapurtu ondoren, lapurrak dirua eta bankuko txartelak gorde orduko, gainontzeko guztia bota egiten du. 2 handia izaten du jendeak honelako kasuetan, eta, ondorioz, dozenaka dei jasotzen dira bulegoan egunero. Bertako langileek diotenez, alferrikakoak dira 3, agertzen direnean beraiek jakinarazten baitiete agirien jabeei bila joan daitezela. Garai jakin batzuetan lana biderkatu egiten zaie; 4, nahiz eta askotan esaten den kontu handiz ibili beharra dagoela Aste Nagusia edo Santo Tomas bezalako egunetan, poltsikoak arintzen dihardutenek emaitza bikainak lortzen dituzte, 5 egin gabe.

Galdutako giltzekin ere sorta ederra egin liteke. Bulegoan jaso ahala, horma batean eskegitzen dituzte. Legeak dioenaren arabera, bi urtez gorde behar dituzte 6 batutako gauza guztiak; hala ere, hilabete batzuen 7 aurkitzaileak aurkitutakoaz galdetzen badu, gehienetan eman egiten zaio. Inongo erreklamaziorik ez badago, berriz, Caritas, Errukietxea eta antzeko erakundeei ematen zaizkie, helduko direnei tokia egiteko.

Dударik gabe, Bilbo berrituaren ikur bilakatu diren museoa eta garraioidea jende multzoak biltzen hasi 8, Garellanoko langileen bizimodua lasaiagoa zen. Pinakotekara doazenen artean askok, eraikuntzaren ikusgarritasunak liluraturik edo, sarreran utzitakoak ahaztu egiten dituzte. Gero eta jende gehiago daraman metrotik edo garraio bide publikoetatik ere etengabeko jariora heltzen zaie. Neguan ahaztutako gauzen kopurua nabarmen hazten da: tapaukak, aterkiak, eskularruak, txanoak...Udaleko Corte Inglesa eratzeko beste.

Motxilak eta poltsak ere eguneroko 9 dira. Nahiz eta gehienetan arropa zahar edo zikinez beteta agertzen diren, noizean behin jantzi erosi berriak izaten dira. Azken urteotan hainbeste ugaritu diren telefono mugikorrek ere gero eta maizago azaltzen dira betaurreko, liburu eta 10 guztiarekin batera. Dirua, bitxiak eta balio handiko gauzak, ordea, ez dira batere ohikoak.

Horrelakoetan, 1950etik indarrean dagoen Kode Zibileko artikulua batek aurkitzaileari eman beharreko kopurua arautzen du, % 5 hain zuzen ere. Dirudienez, jendeak pozik ematen du aipatu kopurua, baina, hala ere, legearen aurka madarikazioka hasten den eskertzarrekorik ere badago bazterretan.

(Euskaldunon Egunkaria, moldatua)

Hutsuneak betetzeko hitzak:

a) beraiek	b) gainerako	c) trabarik	d) buruan	e) eta gero	f) larritasun	g) han
h) hutsik	i) izan ere	j) kontua	k) lasaitasun	l) zuzenean	m) aurretik	n) deiok

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.
a)										



2. *testua*: Testuko hutsune bakoitzerako dituzun hiru proposamenetatik aukeratu egokia eta markatu "x" batez erantzun-orrako taulan. 0. adibidea da: a) sasoi (10 puntu)

Lorentxoren esklabu: azal beltzarana modan dago

__0__ batean azal zuria edertasunaren sinonimoa zen, eta burgesiako damek euren gorputzak eguzkitik babesten zituzten. Egun guztia soroan eguzkipean lanean jarduten zutenengandik bereiztu nahi zuten horrela. Baina 1920 inguruan Coco Chanel ezagunak eguzkiak belztutako azalak modan jarri zituen. Jendearengan aldaketa gertatu zen eta azal ilunak aisialdiarekin lotzen hasi __11__: oporretan eguzkia hartzeko denbora zuten aberatsen kolorearekin ametsetan hasi zen herria. Eta horrela pentsatzen dugu gaur egun ere.

Harrezkero, moda zena obsesio bihurtu da __12__: orain ez da nahikoa udako izpiak aprobetxatzea, jendeak beltzaran kolorea urte guztirako nahi du. Hori lortzeko ez dago eguzkiaren premiarik: nahikoa da izpi ultramorezko argiei lan __13__ uztea.

Hala ere, munduko dermatologoen urteak daramatzate eguzkiaren arriskuak zeintzuk diren azaltzen: horren mingarriak gertatzen diren erredurekin hasi eta azaleko minbizian amaitu daiteke azalaren kolorea aldatu nahiaren abentura. __14__, behin eta berriz azpimarratzen dute azala behar den moduan babestearen garrantzia. Horrez gain, zentzuz jokatzekak buruhauste askotatik babestuko __15__.

0.	11.	12.	13.	14.	15.
a) etorkizun	a) ziren	a) askok	a) egin	a) Bestetik	a) digu
b) sasoi	b) zituzten	b) askorentzat	b) egiteari	b) Horregatik	b) gaitu
c) biharamun	c) zuten	c) askoz	c) egiten	c) lzan ere	c) gara

Azal mota desberdinak daude, eta bakoitzak arreta handia eskatzen du. Eguzkia hartzen dugunean gure azalak hartzen duen kolore iluna guretzat balore estetiko baina ez da, baina denarekin gertatzen den __16__, gorputzak ez du horrelako aldaketarik arrazoirik gabe egiten: beltzaran kolorea, kasu honetan eguzkitik __17__ kanpoko erasoari aurre egiteko babes sistema baina ez da. Izpi ultramoreek azalari eraso egiten diote eta erasoari aurre egiteko azalak ohikoa baino pigmentazio edo melanina gehiago sortzen du.

UV izpien indarra urte sasoiaren __18__ aldatzen doa, baina kalte egiteko arriskua haizearekin eta uretan, harean edo elurretan islatzean handitu egiten da. Gogoan izan lainoak nagusi diren egunetan ere UV izpiek hor segitzen dutela, azalari eraso egiten. Babesik onena, dudarik gabe, gorputza eguzkitik babestea da, hau da, jantzita egotea. Hala ere, hondartzan edo mendian gustura egoteari ez diogu zertan uko egin, horretarako daude eguzkitarako kremak eta bestelako produktuak.

Kremak, ordea, ondo erabili behar dira benetako babesak lortu nahi badugu. Eguzkitarako kremak SPF eskalaren arabera __19__ dira. Zenbat eta zenbaki handiagoa, orduan eta babes handiagoa.

Bakoitzaren azala nolakoa den, babes mota bat edo bestea aukeratuko da. Babes indizea biderkatuz, kremak babesten gaituen denbora kalkula __20__. Adibidez, 20 faktoreko kremarekin eguzkitan 20 minutu egotean, gure azalarentzat minutu bakarra izango balitz bezala da. Beraz, filtroek eguzki aurrean daukagun tolerantzia denbora handitzen dute, besterik ez.

(...eta kitto! 2003-V-16)

16.	17.	18.	19.	20.
a) berdina	a) datorren	a) truke	a) saihesten	a) litzateke
b) bezalakoa	b) datorrela	b) arabera	b) sailkatzen	b) daiteke
c) moduan	c) datorrenez	c) beharrean	c) salatzen	c) genuke



3. *testua*: Testua irakurri eta bost galderen erantzun egokiak eman.

(5 puntu)

Amaia Egilegor: «Errusiarrak nahiko ondo moldatzen dira euskararekin, azkar jartzen dira»

Gabonetako oporrak bukatu eta Moskura bueltatzeko maletak egiten harrapatu dugu Amaia Egilegor, 26 urteko hernaniarra. Eslaviar filologia ikasi zuen eta gaur egun Moskuko Unibertsitatean euskara klaseak ematen ditu. Errusian egiten duen bizimoduaz jakin nahian eta errusiarrak euskararekin zer moduz moldatzen diren ezagutzeko galdera batzuk egin dizkiogu.

(Hernaniko Kronika, 2006/01/08)

- *Nolatan joan zinen Errusiara eta zenbat denbora daramazu bertan?*

- Eslaviar filologia ikasi nuen Bartzelonan eta hirugarren mailan nengoela nire kontu joan nintzen udan. Karrerako 4. mailan irakasgai batzuk errusieran neuzkala-eta, maila hobetu nahi nuen. Karrerako 4. mailan berriro ere joan nintzen, otsailetik uztaileira, 6 hilabetez. Karrera bukatzeko azterketak egitera bueltatu nintzen Bartzelonara. Gero, diru pixka bat egin nuen Errusiara bueltatzeko eta han atera zitzaidan aukera, lehenagotik euskara irakasten zegoen irakasle bat ordezkatzeko, Moskuko unibertsitate publikoan. Orditik han nabil, hau da 3. ikasturtea.

21. Zer dela-eta joan zen Errusiara?

- Karrerako hirugarren maila gainditzeko ezinbestekoa zuelako joan behar izan zuen.
- Laugarren mailako errusiera hobetu beharrean ikusi zuelako bere burua.
- Moskuko Unibertsitatean ordezkapen bat egiteko aukera baten berri izan zuelako.

- *Ematen duzuna zer da, aukerako irakasgai bat?*

- Nik ematen dudana da hemengo aukera askeko irakasgai bat izango litzatekeena. Astean 3 orduko klasea izaten da. 10 ikaslerekin hasi nintzen eta orain 30 bat daude klasean. Ikasle batzuk 3 mailatan daude banatuta eta gero badut beste talde bat maila altua duena.

- *Errusieratik abiatuta kosta egiten al da euskara ikastea?*

- Ahoskatzeko orduan ez dute ia zailtasunik: tz eta adibidez ondo ahoskatzen dute, errusieraz ere badutelako. Hala ere ñ eta ll esatea asko kostatzen zaie, adibidez, "laino" eta "ilargi" ahoskatzerakoan. Ergatiboa ere (NORK kasua), asko kostatzen zaie. Hainbat aditzekin ere arazoak izaten dituzte. Bestela esango nuke azkar jartzen direla, kontuan hartu behar da hizkuntza ikasleak direla ikasle gehienak.

22. Nola ikasten dute euskara errusiarrek?

- Oso erraz, euskal soinuak eta errusiarakoak erraz ahoskatzen dituztelako.
- Lanak izaten dituzte NORK kasua eta aditz batzuk menperatzeko.
- Hizkuntza ikasleek euskara beste hizkuntzak baino azkarrago ikasten dute.

- *Zergatik aukeratzen dute euskara? Zein interes dute?*

- Euskara hizkuntza ergatiboa¹ delako aukeratzen dute batzuek, horrelako hizkuntza gutxi baitaude. Beste batzuek besterik gabe aukeratzen dute, ezberdina den zerbait ikasi nahi dutelako. Hizkuntza ikasleak direnez, hizkuntza bat baino gehiago ikasten dute. Nire ikasle

¹Hizkuntza ergatiboa: Nork kasua duen hizkuntza



batzuek euskararekin batera ikasten dute, txinoa, hungariera edo japoniera, esaterako. Badago ikasle bat aitona euskalduna zuena eta gerra garaian Errusiara alde egin zuena. Arrazoi horregatik aukeratu zuen euskara ikastea.

23. Zein da errusiarrek euskara ikasteko duten motibazioa?

- a) Munduan NORK kasua duen beste hizkuntzarik ez dagoelako.
- b) Hizkuntza ezberdina ikasteagatik baino ez dute aukeratzen batzuek.
- c) Hizkuntza ikasle izanik, nahi eta nahi ez aukeratu behar dutelako.

- *Asko kostatzen zaizu hango bizimodura moldatzea?*

- Hara joan nintzenean iruditu zitzaidan denboran atzera egin nuela, hemengoa erreferentzia hartuta, 10 urte atzera egin izan banu bezala. Alde batetik, garraioan, esaterako, autobusak zaharrak dira, hemengo lehengo autobusak bezalakoak. Bestetik, nabarmena da ez dagoela erdi mailarik, ikusten da jendea bizi maila altua duena eta gero guztiz kontrakoa, oso bizi maila baxua duena.

Sobietar garaiko sistema duten dendak ere ikusten dira oraindik ere: denda batera sartu eta esnea erosteko ilara egin eta ordaindu beharra; gero, berriro ere haragia erostera joan eta beste ilara bat egin behar izaten da, eta berriro ordaindu.

Iluntasunarekin ere ohitu egin behar izaten da, Moskun ez da hain nabarmena, baina San Petesburgon eman nituen hilabeteetan, neguan, arratsaldeko 16:00etarako ilun zegoen, udan, aldiz, goizaldeko 02:00etan oraindik ere iluntzen ari zuen eta goizeko 04:00etan argitzen.

24. Amaiaren esanetan, _____

- a) gizartea oso maila desberdinetan banatuta dago.
- b) hango denda bakoitzean jangai bakarra saltzen da.
- c) Moskun San Petesburgon baino lehenago iluntzen du.

- *Bertan geratzeko asmoa al duzu?*

- Ez, hau da bertan egingo dudan azken ikasturtea. Gero itzultzeko asmoa dut eta bitzta hemen egiten hasi. Ikasi dudanarekin zer ikusia duen zerbaitekin hasi nahi nuke, baina zaila dago.

- *Faltan botako al duzu?*

- Bai, batez ere ikasleekin harreman berezia sortu delako. Lagunik eta familiarik gabe, haiek lagundu didate hara moldatzen. Baina, bestetik, han nagoenean ere faltan botatzen dut hemengoa, batez ere poteoa eta kaleko giroa.

25. Amaiak /Amaiari _____


- a) beste urtebete emango du Moskun eta itzuli egingo da.
- b) lagun eta senideek lagundu diote Errusiako bizimodura egokitzen.
- c) hemen lan gutxi du berak ikasitakoaz bizi ahal izateko.

Erantzunak:

21.	22.	23.	24.	25.




B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA.

1. Entzungaia:  **Garraio publikorako txartel bakarra.** (ikasbil, 321990). Grabazioa birritan entzun eta gero pareka itzazu bi zutabeetako esaldi zatiak. 0. adibidea da: c) (8 puntu)

0. Gipuzkoako Foru Aldundiak	a) garraio publikorako txartel bakarra abian jarriko da.
1. Hemendik astebetara	b) balidatu beharko ditugu.
2. Zenbat eta sarriago erabili txartel hori,	c) etorkizunean bus zerbitzuetarako txartel bakarraren erabilpena bultzatuko du.
3. Oraingo tarifak kilometroen araberakoak badira ere,	d) Gipuzkoako makina bat saltokitan erosi ahal izango da.
4. Txartel bateratu hori	e) aurrerantzean zonaldea hartuko da kontuan.
5. Txartel elektronikoen honen deskontu automatikoa	f) %90 artekoa izan daiteke.
6. Autobusean, sarrerak zein irteerak	g) errekeratzeak 4 euroko kostua izango du.
7. Bidaiei buruzko informazio guztia	h) Gipuzkoako Foru Aldundian jarriko dute salgai.
8. Lurralde-gunean	i) zentralizatuta egongo da.
	j) Hernani eta Donostia arteko ibilbidea egingo da lehenengoz.
	k) orduan eta deskontu handiagoak lortu ahal izango dira.
	l) automatikoki jasoko dute txartel-erabiltzailearen joan-etorrien berri.


Erantzunak:

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
c								

2. Entzungaia:  **Odol tentsioa** (ikasbil, 386330). Grabazioa birritan entzun eta gero esan esaldiak egia ala gezurra diren. (6 puntu)

	EGIA	GEZUR
11. Tentsioa odolak gure zainetan eta hesteetan daraman presioa da.		
12. Tentsio sistolikoa zein diastolikoa bihotza erlaxatzen denean hartu behar dira.		
13. Bihotzekoa izan duen pertsona baten zenbaki egokiak ezberdinak dira.		
14. Tentsioa zaintzeko elikadura zaindu ez ezik kirola ere egin behar da maiz.		
15. Gaur egun pertsona askori lanak ere eragiten dio tentsio altua izatea.		
16. Zenbat eta zaharrago orduan eta altuago izango dugu tentsioa.		



3. Entzungaia:  **Gosaria.** (ikasbil, 381730). Grabazioa birritan entzun eta gero galderen erantzun zuzenak eman. (6 puntu)

17. Haurren gosariari dagokionez, _____

- a) Nafarroako haur gehienek ez dute gosaltzen.
- b) gosalorduan fruta jatea ez da hain garrantzitsua.
- c) gero eta haur gehiago dira fundamentuz gosaltzen ez dutenak.

18. Hurrek _____

- a) egun osoan irauteko adina indar izan dezaten, oinarritzkoa da gosaria.
- b) kolesterola baldin badute, ogi integrala gosaltzea behar dute.
- c) kafesne-zopa gosaltzea litzateke/lukete egokiena, lehengoek gosaltzen zuten bezala.

19. Helduei dagokienez, _____

- a) gehienek lantokian hartzen dute gosariko kafea.
- b) txikitatik esnea gosaltzen duten emakumeek ez dute osteoporosirik izango.
- c) helduek ere hurrei komeni zaien gosaria egin behar lukete.

20. Amagoiak dioenez, _____

- a) Ingalaterrako ohiturak hartu behar genituzke eredutzat gosalorduan.
- b) gosariari ez diogu behar adinako garrantzia ematen.
- c) fruta, zerealak eta esnekiak afaltzen ohitu behar genuke arin oheratzeko.

Erantzunak:

17.	18.	19.	20.



**EUSKARAKO MAILA PROBA
TARTEKO MAILA (B1)**

**PRUEBA DE NIVEL DE EUSKERA
NIVEL INTERMEDIO (B1)**

IZEN-ABIZENAK:.....
NA/D.N.I.:.....
TELEFONO(A):.....

ERANTZUN-ORRIA

A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA. (25 PUNTU)

1. Testua: Galdutako gauzen museoa. (10 puntu)

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.
a)										

2. Testua: Lorentxoren esklabu: azal beltzarana modan dago. (10 puntu)

0.	11.	12.	13.	14.	15.	16.	17.	18.	19.	20.
b)										

3. Testua: Amaia Egilegor. (5 puntu)

21.	22.	23.	24.	25.

B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA. (20 PUNTU)

1. Entzungaia: Garraio publikorako txartel bakarra. (8 puntu)

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
c								

2. Entzungaia: Odol tentsioa. (6 puntu)

	11.	12.	13.	14.	15.	16.
E. / G.						

3. Entzungaia: Gosaria. (6 puntu)

17.	18.	19.	20.



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Departamento de Educación, Universidades e
Investigación
EE.OO.II. de la C.A.P.V.

<%35 (15 edo gutxiago): B1.1
%35-70 (16-31 punturekin): B1.2
%70 > (32 edo gehiago): B2.1

**EUSKARAKO MAILA PROBA
TARTEKO MAILA (B1)**

**PRUEBA DE NIVEL DE EUSKERA
NIVEL INTERMEDIO (B1)**

ERANTZUN ZUZENAK

A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA. (25 PUNTU)

1. Testua: Galdutako gauzen museoa. (10 puntu)

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.
a)	l	f	n	i	h	g	d	m	j	b

2. Testua: Lorentxoren esklabu: azal beltzarana modan dago. (10 puntu)

0.	11.	12.	13.	14.	15.	16.	17.	18.	19.	20.
b)	a	b	c	b	b	c	a	b	b	b

3. Testua: Amaia Egileor. (5 puntu)

21.	22.	23.	24.	25.
b	b	b	a	c

B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA. (20 PUNTU)

1. Entzungaia: Garraio publikorako txartel bakarra. (8 puntu)

0.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
c	a	k	e	d	f	b	i	l

2. Entzungaia: Odol tentsioa. (6 puntu)

	11.	12.	13.	14.	15.	16.
E. / G.	G	G	E	E	E	E

3. Entzungaia: Gosaria. (6 puntu)

17.	18.	19.	20.
c	a	c	b



MAILA PROBA : TARTEKO MAILA

C. ATALA: IDATZIZKO ADIERAZPENA.

- Kontatu **idazlantxo jarraitu batean** (ez monosilaboekin ...):

1. ZURE BIOGRAFIATXOA:

- Nor zaren.
- Non eta noiz jaioa.
- Non bizi zaren.
- Zer ikasketa egin dituzun orain arte.
- Zer lan edo ikasketa egiten duzun orain.

2. ZER IKASI DUZUN ORAIN ARTE EUSKARAZ:

- Ea zer beste kurtso egin duzun euskara ikasteko orain arte (eskolan / eskolatik kanpo) eta zehaztu.
 - Noiz, non, zein mailatan?
- Ea txikitan bazenekien zer edo zer, edo zure familiak badakien.
- Ea orain telebista ikustean edo irratia entzutean dena ulertzen duzun edo nola, zenbat.
 - Ea zuk hitz egiten duzun zerbait euskaraz. Norekin? Noiz? Nola?
 - Ea zer irakurtzeko eta ulertzeko ohitura duzun euskaraz (egunkaria, aldizkariak,...).
 - Ea idazten nola moldatzen zaren, ze ohitura duzun.
 - Ea gramatika asko dakizun. Zenbat? Zer? Ea zer interesatzen zaizun ikastea gramatikan.
 - Pasa den kurtsoan ikasi zenuen euskara nonbait?
 - Noiz, non, zein maila? Bukatu zenuen?
 - Ea inoiz aurkeztu zaren euskarako azterketetara. Ea asmorik baduzun aurten.
 - Zer landu nahi zenukeen batez ere aurten: mintzamena, entzuna ulertzea, irakurtzea, idaztea, testak, ariketak, gramatika,...

3. ZER EGIN NAHI DUZUN AURTEN:

- Pentsatuz 12 maila edo markatu litezkeela euskara ikasteko, zu non egongo zinateke, zure ustez, gutxi gorabehera, edo non hasi nahi zenuke aurten ikasten? Markatu mesedez ondoko koadrotxo bat edo bi **X** (gurutze) batekin (azpian gutxi gorabeherako korrespondentziak):

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12				
_____			_____			_____			_____			_____				
≈A1			≈A2			≈B1			≈B2			≈C1 (EGA)				
Osakidetza eta IVAP-HAEEko ≈:											≈1HE		≈2HE		≈3HE (EGA)	
Euskaltegietako ≈:						≈1. maila			≈2. maila			≈3. maila (EGA)				

IDAZLANA (Zure izena, ... -hemen eta orriaren atzealdean-: